

Zorri kontuetan, hobe aurea hartzea!

Eskolara itzultzean, gurasoendako eta, jakina, haurrendako ere arazo gogaikarrienetako bat itzultzen da: zorriak.

Intsektu txiki hauek edonor harrapa dezakete eta jakin behar da zorriak izatea inolaz ere ez dela higiene faltaren ondorio.

Zer dira zorriak?



Giza zorria (*Pediculus humanus*) ektoparasito bat da

Zorriak intsektu parasitoak dira. Beren elikagai bakarra jendeari ausiki egin eta xurgatzen dieten odola da.

Ondoeza sortzen dute, aznahi bizia, jendea hatz egitera bultzatzen duena; horrek sumindura areagotzen du, baita hatz egiteko gogoia ere, eta, azkenik, gaiztatzen ahal diren zauri txikiak egiten dira.

Nola ezagut ditzakegu?

Lehendabizi, etengabeko aznahia izaten da, buruan. Hoberena, poliki bilatzea da, garondoan eta belarrien gibelean.

Zorri emeek BARTZAK izeneko arrautzak jartzen dituzte eta gogor itsatsita uzten ilearen sustraian. Txikiak dira, orratz-buru baten tamainakoak eta oso gogorrak. Buruko zahitik bereizteko, kontuan hartu nakarraren distira dutela eta ileari gogor loturik egoten direla.



Adi!! Semea buruan hazka ari da!!

Nola kutsatzen dira?

Zorri hauek gizakiaren buruan soilik bizi dira, ez animalietan; hurbiltasunagatik igarotzen dira pertsona batetik bestera, edo norberaren objektuak elkarri utzitakoan (txanoak, zintak, orraziak, bufandak, eta abar).



Hurtzaroan eta nerabezaroan hurbiltze fisikoa sozializazioaren ataletako bat da.

Nola kendu?

Lehendabizi, familiako zenbat kidek dituzten zorriak begiratu behar da, eta denei tratamendua egin. Farmazietan produktu asko daude zorrien kontra (lozioa, xanpua, hautsak...).

Denak dira onak eta bakoitzak bere jarraibideak ditu aplikatzeko.

- Lozioak, hautsak edo espraia jarraibideen arabera behar dira erabili.
- Zorrien kontrako xanpuak jarraibideetan adierazitako denboran utzi behar dira emanda, aparra kendu baino lehen.
- Betiere, bartz GUZTIAK kendu behar dira gero, zorrietarako orrazi batekin edo behatzekin.
- ASTE BATEN BURUAN, BERRIZ EGIN TRATAMENDU OSOA.

Nola aurreikusi?

Higiene pertsonala zaindu, eta burua astean behin edo bitan garbitu. Astean bitan ilean begiratu, batez ere garondoan eta belarrien gibelean. Garbi izan orraziak, eskuilak eta buruko tresnak.



Ez dago beste aukerarik: orrazi xehearekin burua AZTERTU behar dugu.

Informazioa, [Hezkuntza Departamentuko web orrian](#).